

PRESIDENTEA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko MAIATZAREN 18ean  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ  
DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko apirilaren 20an eginiko Ohiko Bilkuraren akta.**

Iratxe (AB) abstenitu egingo da, saioan izan ez zelako.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako gainerako korporazioko kideek akta onetsi dute.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Etxaurren Ikastolaren eta Arespalditzako udal-bulegoen eraikinei buruzko energia-eraginkortasunaren ikuskaritza, ESETEK SMART ENERGY enpresak egina, eta udaleko energia-eraginkortasuna hobetzeko ekintzak egiteko konpromisoa hartzea.**

Gentzak (EAJ-PNV) aipatu du, batzordean esan zen moduan, ikuskaritzaren arabera hainbat puntu hobetu behar direla. Ikuskaritza horretan proposatutako neurriak hatzen joango gara irtengo diren programetan.

Idazkariak aipatu du akordio-proposamenetik kendu egin dela Ikastolako galdara kendu eta biomasazko bat jartzeko konpromisoa; izan ere, laguntzen programaren epea urtebetekoa da, eta obra horretarako ez legoke denborarik.

Nereak (BILDU) esan du ekintza horiek oso positiboak direla energia-eraginkortasuna hobetzeko, eta halakoak liratekeela beste batzuk ere, hala nola energia berriztagarrien alde egitea. Hori dela eta, gogorarazi nahi du berriki oniritzia eman zela Armentian gas-esplorazio bat egiteko (Bilduk zalantzan jarri zuen akordio hori) eta, susmatu bezala, baieztatu dute Ministerioak ingurumen-txosten berriak eskatu dituela; hortaz, zituzten beldurrak berretsi dituzte.

Gentzak (EAJ-PNV) aipatu du gobernu taldeak ahal duena egingo duela energia berriztagarrien alde egiteko. Armentiaren gaiari dagokionez, gaia landu zeneko osoko bilkuran aipatutakora itzuliko da. Orduan esan bezala, prospekzioak egitearekin bat datoz, betiere ingurumen-arloan baldintza denak betetzen badira. Udal-arloan, eraginkortasuna hobetzeko eman beharreko pausoak emango dituzte.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Urriaren 18ko 686/2016 Diputatuen Kontseiluaren akordioaren bitartez Aiarako Udalari diru-laguntza eman zitzaiola Etxaurren Ikastolako eta Arespalditzako udal-bulegoetako eraikinen energia-eraginkortasuneko ikuskaritza bat egiteko, Mugarri 2016 Planaren esparruan.

**IKUSI DA.-** 2016ko urriaren 19an eta 423/16 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Esetek Smart Energy SL enpresari esleitu zitzaiola energia-eraginkortasuneko ikuskaritza hori egiteko zerbitzuen kontratu txikia.

**IKUSI DA.-** 2017ko apirilaren 26an esleipendunak Udalari eman zizkiola Etxaurren Ikastolako eta Arespalditzako udal-bulegoetako eraikinen energia-eraginkortasuneko ikuskaritzari buruzko agiriak.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko maiatzaren 9an emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 41/2016 Foru Dekretua. Horren bitartez onesten dira, Mugarri Planaren esparruan –Araban energia berriztagarriak sustatu eta garatzekoan–, energia-eraginkortasunerako ekintzak eta biomasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko laguntzen lerroa arautzen duten oinarriak eta laguntza horien deialdia.

Udalbatzak, bertaratutako kide guztiak ados daudela, honako hau **ERABAKI** du:

**Lehena.-** Etxaurren Ikastolako eta Arespalditzako udal-bulegoetako eraikinen energia-eraginkortasuneko ikuskaritza onartzea, ESETEK SMART ENERGY enpresak egina.

**Bigarrena.-** Konpromisoa hartzea urtebeteko epean ikuskaritza horretako ekintzaren bat gauzatuko duela, energia-kontsumoa ehuneko 10 murrizteko gutxienez; eta, zehazki, gaur egungo argiztapena kendu eta LED motako teknologia eraginkorragoak jartzea. Bestalde, beharrezkoak diren administrazio-kudeaketa guztiak egingo dira hornidura elektrikoan kontratatutako potentzia optimizatzeko, energia elektrikoaren "azken" prezioa hobetzeko, alegia.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, abandonatuta dauden edo noraezean dabilzan txakurrak jasotzeko, zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua eskaintzeko kudeaketa-agindua.**

Gentzak (EAJ-PNV) aipatu du ahaleginak egingo dituztela txakur batek bere etxetik ihes eginez gero, baina mikrotxipa izanez gero, Gasteizera berehala ez eramateko, jabeak jaso ahal izan dezan.

Laurenk (BILDU) esan du bandoen, udal-aldizkariaren edo web-orriaren bitartez jakinarazi beharko dela.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 25/2013 Foru Dekretua, abandonatuta dauden edo noraezean dabilzan txakurrak jasotzeko prozedura eta udalei kudeaketa-aginduren bitartez zerbitzuaren hitzarmena arautzen duena.

**IKUSI DA.-**Gaur egun, Aiarako Udalak, bere bitartekoekin, ezin du zerbitzu hori eskaini eraginkortasun- eta eragingarritasun-baldintza egokietan; horrenbestez, udal honek uste du zerbitzu hori eskaintzeko modu egokiena Arabako Foru Aldundiari kudeaketa-agindua ematea dela. Dena dela, gai horretan Udalak izango du titulartasuna eta eskumena.

**ONDORIOA.-** Aiarako Udalaren kudeaketa-agindua formalizatu behar da Arabako Foru Aldundiaren alde, hitzarmen baten bitartez. Dokumentu horretan ezarriko dira Nekazaritza Sailaren eta Aiarako Udalaren konpromisoak.

**AINTZAT HARTU DA.-** Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8., 11. eta bat datozen artikulua eta Euskadin animaliak babesteko 6/1993 Legea.

**AINTZAT HARTU DA.-** Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 47.2 h) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, korporazio kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko dela funtzioen gardentasunari edo beste administrazio publiko batzuei jarduerak agintzeari buruzko erabakiak hartzeko:

**AINTZAT HARTU DA.-** Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko maiatzaren 9an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, bertaratutako kide guztiak ados daudela, honako hau **ERABAKI** du:

**Lehena.-** Kudeaketa-agindua egitea Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari udalerrri honetan abandonatuta dauden edo noraezean dabilzan txakurrak jasotzeko, zaintzeko eta mantentzeko.

**Bigarrena.-** Dagokion hitzarmena formalizatzea, hitzarmen-ereduaren eta abuztuaren 1eko 23/2013 Foru Dekretuan (2013ko abuztuaren 21eko ALHAOn argitaratua, 95. zk.) ezarritako baldintzen arabera.

**Hirugarrena.-** Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eskuordetzea espediente zigortzaileak bideratzeko eskumena, baldin eta jabeek txakurrak abandonatzen badituzte.

**Laugarrena.-** Kudeaketa-agindua formalizatzea etenik gabe datozen lau ekitaldietarako. Agindua ondoriorik gabe utzi ahal izango da Aiarako Udalak hitzarmenaren salaketa berariaz jakinarazten badu kudeaketa-aginduak ondorioak izango dituen aurreko ekitaldiko abenduaren 31 baino hiru hilabete lehenago.

#### **4.- Udalbatza osoari berri ematea organo kontu-hartzaileak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz egindako txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.**

Idazkariak txostenaren edukia azaldu du. Udalbatza Osoko kideek ez dute gaiari buruzko ezer esan eta jakinaren gainean geratu dira.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako soberakina erabiltzeko beharra, 2016ko likidazioak sortu dituen gastu orokorretarako, gastu-partidak sortzeko edo dagoeneko daudenak handitzeko, saihetsezinak diren eta 2018. urteko aurrekontuari itxaron ezin dioten gastuak ordaintzeko.

**IKUSI DA.-** Idazkari eta kontu-hartzaileak 2017ko maiatzaren 15ean eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna betetzeari buruzkoa, Diruzaintzako soberakinaren gastuak finantzatzeko, gastu orokorrak direla eta.

**AINTZAT HARTU DIRA.-** Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz 2017ko maiatzaren 15ean organo kontu-hartzaileak egin duen txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoaren, berri du.

- Gentzak (EAJ-PNV) proposatu du aztergaien zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu baino lehen premiazko adierazpen bat sartzea.

Aipatu du iragan larunbatean topaketa bat egin zela Laudion eta eskualdeko ikastetxe guztietako gurasoen elkarteek parte hartu zutela. Udalaren ordezkari gisa, Montse zinegotzia izan zen bertan. Topaketa horretan, dokumentu bat adostu zuten, eta horixe helarazi zaizue. Udal guztiek beren osoko bilkuretan onartzea eskatu dute.

Nereak (BILDU) galdetu du ea zein den premia.

Montsek (EAJ-PNV) erantzun du familiaren eguna maiatzaren 15a dela eta udal guztiek hitzartu zutela adierazpena maiatzeko osoko bilkuretan landuko zutela; horra hor premia.

Nereak (BILDU) adierazi du dokumentua oso berandu iritsi dela eta ez duela aztertzeko astirik izan.

Gentzak (EAJ-PNV) esan du asmoa dela eskualdeko gurasoen elkarte guztietatik egin diguten eskaerari erantzutea. Zinegotziei ez zaie lehenago bidali K. C.k beste dokumentu bat bidaliko zuela hitzeman zuelako, baina ez da horrela izan, eta esku artean zutena bidali dute.

Nereak ez du hori zalantzan jartzen, baina bere taldeak ez zekien ezer horri buruz eta oso presazkoa dela iruditzen zaie.

Jarraian premia bozkatu da, eta Udalbatzak aho batez onetsi du. Ondoren, hurrengo puntua eztabaidatzeari eta bozkatzeari ekin diote.

#### **5.- Aiarako Kuadrillako Familien Adierazpena.**

Gentzak (EAJ-PNV) aipatu du adierazpenak familiaren figurari, familiaren garrantziari balioa ematen diola. Adierazpenak hamar puntu ditu.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

## **"AIARAKO KUADRILLAKO FAMILIEN ADIERAZPENA.**

**1.- Familiok inplikaturata gaude bizi garen gizartean eta badugu eraldatzeko lana egiteko.**

*Familiak eta gizarteak, batera hazi eta elkarri eragiten diogu. Gure balioen sistema bideratu behar da gizartearen aberastasuna sortzera. Badugu paper proaktiboa eta izpiritu eraldatzailea.*

**2.- Gizarte aldaketak sustatzen ditugu eta topatzeko guneak sortzen ditugu.**

*Familiok badugu Agintea, gai gara, eta bagaude legitimatuta gatazketan bitartekotzan aritzeko, topatzeko guneak eskaintzeko, eta erkidegoan aldaketak sustatzeko. Eta hori egin behar dugu era bateratuan eta antolatua.*

**3.- Prebenitza, arazoei aurre hartzea, bada sarean jardutea eta aritzea Denok "batu egiten dugu"; eta "batu egiten dugu" nean gure emaitzak "biderkatu" egin ohi dira.**

*Horregatik, nahitaezkoa da jardutea komunitateAN eta komunitateAREKIN, prebentzioko agente eragile ezberdinekin elkarrekin batera lanean: Guraso Elkarteak, erakundeak, udal sailak, eskola zentroak, komunitate baliabideak...*

**4.- Familiok partekatzen ditugu beharrian eta interes komunak. Beraz, arazoei eman beharreko erantzunak ere halakoak dira.**

*Edozein familiak ditugun geure beharrian partikularrak, gehien batean, badira gainerakoek ere partekatzen dituzten beharrianak eta interesak; horregatik, beharbada, beharrezkoa izango da proposamenei era bateratuan aurre egitea.*

**5.- Familiok eskaintzen ditugu babes faktoreak, bihar-etzi –etorkizunean- arazoak saihesteko edo horiek gutxitzeko ezinbestekoak eta beharrezkoak direnak, besteak beste, adikzioena.**

*Balio eta bizitza estilo fisikoki eta mentalki osasungarrietan hezten dugu, zailtasunei aurre egiteko norbanako baliabideak eskaintzen ditugu (erresilientzia) eta, familia, gizartean aritzeko trebetasunak ikasten den espazioa da, nork bere buruarekiko estimua indartzen duena, e.a.*

**6.- Hurbil eta hur izateak errazten du apendizaiak eta ezagutzaren sormena.**

*Populazio gune txikietan eta elkarrengandik hur daudenetan bizitzeak erraztu ohi du denok elkar ezagutzea, enpatizatzea, eta eskarmentuak, baliabideak eta helburuak partekatu ahal ditzugun, hala norbanako legez, nola elkarte legez.*

**7.- Gure ahalegina eta arduraldia ez da alferrik, erkidegoa aurrera doa eta garatu egiten da, gizarte kapitala gara.**

*Gure papera oinarritzkoa da, garatzen diren gizartearekiko harreman modu egoki eta erabilgarrien transmisore eta eskualdatzaile legez. Hainbat erakunde eta gizarteko taldeetatik aitortu beharko litzateke egiten dugun lana horren garrantzia.*

**8.- Bidaia honetan, euskarria hartu behar dugu jadanik Guraso Elkarteek eta profesionalek egiten dituen lanean, horiek eskaini ahal baitigute euskarria, laguntza eta ezagutza.**

*Ezinbestekoa da balioan jartzea Guraso Elkarteekin lankidetzan ari diren pertsonen borondatezko eta doaneko lana, zein Prebentzioko Talde Teknikoen lanarekin batera, sortzen ari den prebentzio zereginarekiko kontzientzia eta sentsibilitatea. Garrantzitsua da batera egiten dugun lan hori ikusia izatea.*

**9.- Teknlogiek eta informazio sistemek errazten dute topagunea aurkitzea eta ahaleginak bateratzea; horien erabilerak onak bermatzen du pertsona interesatu gehiagorengana iritsi ahal izatea.**

*Sare sozialek errazten dute interkonektibitatea, bateratze eta hurbileko espazio propioak sortzea laguntzen dutelarik. Informazio, komunikazio trukerako eta kanporako proiektiorako aukera dira.*

**10.- Baterako zereginak eskatzen dituzte espazio espezifikoak eta denbora zehatzak.**

*Sortu behar ditugu sinergiak gizartea eraldatzeko proiektu berriak bultzatuko dituztenak Udal eta udalez gaindiko erakundeen baterako lanaren bitartez, hala nola komunitate eta erkidego prebentzioan parte-hartzen duten gainerako gizarte taldeekin batera. Erakundeekin eta beste komunitateko gizarte mugimendu batzuekin elkarlanerako espazio espezifikoak egon behar dira."*

**6.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **137/17 erref.- MENAGARAIIKO EMAKUME TALDEA.** 2016ko diru-laguntzaren ziurtagiria eskatu du.
- **138/17. erref.- LUXAONDO CLUB FUTBOL.** 2016ko diru-laguntzaren ziurtagiria eskatu du.
- **139/17. erref.- AIARAKO SARAUBE HOCKEY KLUBA.** 2016ko diru-laguntzaren ziurtagiria eskatu du.
- **140/17. erref.- PMPA.-** Luiaondoko etxebizitzako kanpoko arotzeria aldatzeko hirigintzako udal-lizentzia eman zaio.
- **141/17. erref.- Ecothermia Velez Instalaciones SL eta Orixe Comercial SL.-** Zuhatzako lursailean propano-gasaren andel-jarduera garatzea onartu du.
- **142/17. erref.- Orixe Comercial, SL.-** Lehen aldiz erabiltzeko behin betiko baimena ematea, Zuhatzako 2. poligonoko 2246 lursailean dagoen dorretxean dauden hiru etxebizitzetarako.
- **143/17. erref.-** Arabako Foru Aldundiari emakume eta gizonen arteko berdintasun-programak garatzeko 2017ko deialdiko diru-laguntzak eskatzea.
- **144/17. erref.-JBY.-** Jarduera erabiltzea luzatzearen baimenaren eskaerari uko egitea, dagokion dokumentazioa ez aurkezteagatik horretarako ezarritako epean.
- **145/17. erref.- JOO-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespaldintzan dagoen etxebizitza bateko fatxada konpontzeko.
- **146/17. erref.-** Comercial del limpieza Villar SA.- Aiarako eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren bermetzat aurkeztutako abalak itzultzea.
- **147/17 erref.- Leziaga 1995 Construcciones SL.-** "Luiaondon farmaziako botika-kutxa jartzeko etxola birgaitzea" obra gauzatzeko epearen luzapena onartzea.
- **148/17. erref.- EDP Comercializadora SAU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2017ko 1. hiruhilekoa), kontzeptua: argindarra eta gasa.
- **149/17 erref.- Izoriako Administrazio Batza.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.

- **150/17. erref.- JZO.-** Baimena eman zaio Salbada mendilerroari buruzko informazioa eskuratzeko.
- **151/17 erref.-** Martxoaren 27ko 118/2017 Foru Aginduak esandakoari heldzea, eta 2017an San Isidro eguneko Abeltzaintza Azokaren XLI. edizioa antolatzeneko diru-laguntza eskatzea.
- **152/17 erref.- PUI.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako lursail batean hormigoizko zoladura exekutatzeko.
- **153/17. erref.- PUI.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako ganadu-ustiapen batean jertzitegi-hobi bat areagotzeko.
- **154/17. erref.- ILB.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenon etxebizitza bat birgaitzeko eta egokitzeko.
- **155/17 erref. .- ILB.-** Bermea eskatzea, Llantenon dagoen etxebizitza bat zaharberritzeko eta egokitzeko obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **156/17 erref.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Bermea eskatzea "Arespalditzako saneamendu-sarean jarduera partzialak" egiteko obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **157/17 erref.-** Zerbitzu anitzeko langile bat aldi baterako kontratatzea.
- **158/17 erref.-** Arespalditzako Administrazio Batza.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako saneamendu-sarean jarduera partzialak egiteko.
- **159/17 erref.- AHC eta AMI.-** Obrak hasteko udal-baimena ematea, Etxegoienen familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko.
- **160/17 erref.-** Zerbitzu anitzeko langile bat aldi baterako kontratatzea.
- **161/17 erref.- Axpo Iberia SL.-** 2017ko lehenengo hiruhilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, elektrizitate-fakturaren kontzeptuan.
- **162/17 erref.-** Uraren tasari eta estolderia-tasari dagozkien errolden zerrenda, 2017ko 1. hiruhilekoa.
- **163/17 erref.- Naturgas Suministro GLP SAU.-** 2017ko lehenengo hiruhilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, elektrizitate-fakturaren kontzeptuan.
- **164/17 erref.- Naturgas Energia Distribución SAU.-** 2017ko lehenengo hiruhilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, elektrizitate-fakturaren kontzeptuan.
- **165/17 erref.- Izoriako Administrazio Batza.-**2016ko obren diru-laguntzaren dokumentazioa eskatzea.
- **166/17 erref.- JJAS. -** 2017ko otsailaren 23ko 74/17 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren aurkako berrezartze-helegitea ukatzea.
- **167/17 erref.- SGM.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako etxebizitza bateko komuna zaharberritzeko.
- **168/17 erref.- Goiener SCoop.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2017ko 1. hiruhilekoa), elektrizitatearen kontzeptuagatik.
- **169/17 erref.-** Kreditua aldatzeko espedienteak: 1/2017 kreditu gehigarria.
- **170/17 erref.- ILB-** Banaketa horizontala egiteko udal-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **171/17 erref.- JEES.** Egun taxi gisa erabiltzen duen ibilgailua berri batengatik aldatzea baimentzea.
- **172/17 Zorroza Gestión SL.-** Luzapena ematea segurtasuneko prebentzio-neurriak gauzatzeko errekerimendua eta dokumentazioa aurkezteko.
- **173/17 erref.- SLU-IUB.-** Etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia-eskaerari uko egin zaiola ulertzea, gaiari buruzko eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.

- **174/17 erref.- JJU-SG.-** Etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia-eskaerari uko egin zaiola ulertzea, gaiari buruzko eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.
- **175/17 erref.- MIEB.-** Obrarako udal-lizentziaren eskaerari uko egin zaiola ulertzea, gaiari buruzko eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.
- **176/17 erref.-**Familientzako laguntzen deialdia, 2016an EAeko kiroldegiko bazkideen kuotak ordaintzeko.
- **177/17 erref.- Maderas Zerrabe SL.-** Interesdunari eskatutako administrazio-espeditentea aztertzeke eskubidea ematea.
- **178/17 erref.-** Onestea FF/2017/4 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **179/17 erref.-** Murgako Administrazio Batza.- Eskatutako informazio publikoa eskuratzea baimentzea.
- **180/17 erref.-Leziaga 1995 Construcciones SL.-** Obren 4. ziurtagiria onestea, Luitaondoko botika-kutxa jarriko den etxola birgaitzeko obrei buruzkoa.
- **181/17 erref.-** Aiarako argiteria publikoaren mantentze-lanen kontratua esleitzea.
- **182/17 erref.- Viesgo Energia SL.-** Lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea (2017ko 1. hiruhilekoa), gas-horniduraren eta elektrizitatearen kontzeptuagatik.
- **183/17 erref.-** Arabako Foru Aldundiari 2017an kulturarekin loturako jarduerak antolatzeke diru-laguntza eskatzea.
- **184/17 erref.- JLM.-** Informazio publikoa eskuratzeari erantzuna ematea, Murgako zerrategiaren espeditenteari dagokionez.
- **185/17 erref.- MBA eta VG.-** Fidantza eskatzea, Olabazarren familia bakarreke etxebizitza bat eraikitzeke obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **186/17 erref.- Artziniegako eta Okondoko Udalak.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzua emateagatik gastuen zenbatekoak ordaintzeke eskatzea (2016. urtea).
- **187/17 erref.- ILB.-** Obrak hasteko udal-baimena ematea, Llantenen landa-etxebizitza bat birgaitzeke eta egokitzeko.
- **188/17 erref.- TEL.-** XGn eskatutako dokumentazioa aurkezteke epea luzatzeko eskaera onartzea: 125/17.
- **189/17 erref.- JIG, Alday Ongintzako Fundazioaren izenean.-** Dokumentazioa areagotzeke eskatzea.
- **190/17 erref.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** "Arespalditzako zahar-etxearen ondoan dagoen eraitsitako eraikinaren fatxadaren aurrealdea berreraikitzeke" lanen okupazioaren lizentzia ematea, berau eraisteke eta berreraikitzeke lanak amaitu ondoren.
- **191/17 erref.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Bermea itzultzea, "Arespalditzako zahar-etxearen ondoan dagoen eraitsitako eraikinaren fatxadaren aurrealdea berriz eraikitzeke" obrek eragin dituzten eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **192/17 erref.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta obrak hasteko baimenerako dokumentazioa areagotzea eskatzea.
- **193/17 erref.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Bermea eskatzea "Zahar-etxe berriaren eraikina (bigarren fasea)" obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko
- **194/17 erref.- ICF- XDA.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako udal-lizentziaren espeditenteari dagokionez.
- **195/17 erref.- LLS.-** Bermea eskatzea, Izorian etxebizitza baten eraikuntza osagarri bat eraikitzeke obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.



Iraidak (AB) 147/17 Dekretuari buruz galdetu du.

Gentzak (EAJ-PNV) erantzun dio Davidek epea luzatzearen aldeko txostena egin duela, atzerapena justifikatuta baitago.

### **7.- Eskaerak eta galderak.**

Laurenk (BILDU) galdetu du ea, Aialurrek ganadu-kargari buruz eginiko txostenean, Neikerren datuak jasotzea falta zen.

Gentzak (EAJ-PNV) erantzun dio Neikerrek Aialurri helarazten dizkiola emaitzak, Larren Kudeaketa Planean aintzat har ditzan. Gentzak gehitu du Aste Santutik aldizka deitzen ari zaiola Davidi, eta azkenean, bidali diola Larren Kudeaketa Planaren azken bertsioa. Lehen Sektoreko Batzorde batean aztertzeko bidaliko da, eta Davidi ere dei egingo zaio, azal dezan. Ekainaren amaieran bidaliko da, diru-laguntza justifikatzeko. Gainera, igoera eta jaitsieren gaiari dagokionez, ARAN enpresari eskatu zaio proposamen ekonomiko bat bidaltzeko, kontrola egiteko eta Ermandadeari aholkularitza teknikoa emateko. Proposamen ekonomikoa jasotakoan, Batzordean ere landuko da.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hemezortzian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.